

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 721/2020 Erabakia, abenduaren 29koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzeari**

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak aldatuak, bere zioen adierazpenean ondokoa dio: "Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu zerrendak, administrazio karrerako funtsezko elementu, lansari sistemaren muinik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio egiturak arrazoi bideratzeko eragile bilakatuz. (...) lanpostu zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu zerrenda horiek izaera dinamikoa dute..." Hori guztia bat dator Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legeak 74. artikuluan xedatutakoarekin, alegia, "Administrazio publikoek antolakuntza egituratuko dute lanpostu zerrenden eta antzeko antolakuntza tresnen bidez, eta tresnok ondokoak bildu beharko dituzte gutxienez: lanpostuen izena, klasifikazio profesionaleko taldeak, hala badagokio, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, hornitze sistemak eta ordainsari osagarriak".

Ikuspuntu hori oinarri, 6/1989 Legearen 13. artikuluan lanpostu zerrendak honela definitzen dira: lanpostu zerrendak dira euskal administrazio publikoek bere barne egiturak arrazionalizatu eta antolatu, langile beharrak zehaztu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak definitu eta haietariko bakoitza sailkatzeko tresnak. Hain zuzen ere, lege horretako 14. artikulua xedatzen duenez, lanpostu zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarioentzat, lan itunpeko langile finkoentzat eta behin-behinekoentzat gordetakoak bereiziz.

Halaber, 15. artikuluan xedatzen du lanpostu zerrendek nahitaez adierazi behar dituztela datu hauek: lanpostu bakoitzaren izena, atxikita dagoeneko saila edo zuzendaritza, dedikazio erregimena, lanpostuan jarduteko eskatzen diren baldintzak – haien artean hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data – eta atxikita dagoeneko talde, kidego edo eskala, edo lan kategoria.

Era berean, euskal lege horrek 16. artikuluan xedatzen du foru aldundietako lanpostu zerrendak eta haiei egindako aldaketak dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira foru aldundiei dagokienean.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren antolaketa egituren berezko bilakaerak aldaketa multzo bat ekarri du berekin, eta horrek behartu egiten du haren lanpostu zerrendan dagokion aldaketa egitera.

Hala, lanpostu hau amortizatu behar da: 42.002, Administrari Burua "B", 80.2.01.1 Ekonomia Eta Aurrekontuak Arloari atxikia, eraginkortasuna galdu duelako, eta, horren ordez, lanpostu hau sortzea: 54.047, Administraria, 80.2.01.2 Kontratazio eta Araubide Juridiko Arloari atxikia.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 10eko 150/2020 Erabakiaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren funtzionario eta karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrenda aldatu zen. Lehenago, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 5eko 171/2019 Erabakiaren bidez, 18 lanpostu sortu ziren, azken urteotan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen izan den bilakaera-prozesuari erantzuteko, hasierako behin-behinekotasuna izan arren, egoeraren arabera izaera hori pixkanaka lausotu duten funtzioak egiturazko gisa finkatzeari dagokionez, denboran luzatu egin da, inguruko lanpostuekin erabateko lotura lortu arte.

Prozesu horrek ez zituen egungo finkatze-beharrak bete, eta, horregatik, egiturazkotzat jo diren funtzioak detektatu ondoren, berriz ere, Arabako Lurralde Historikoaren 2020. urterako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauaren 24.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, gaitutako hamar lanpostuak sortu eta aurrekontu- plantillan finkatu behar dira.

Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoari dagokionez- Euskal Autonomia Erkidegoko euskararen erabileraren normalizazio prozesua arautzen duena- adierazi behar da derrigortasun-data beteta dagoela sortu berri diren bi dotazioetan, eta, horrela, lanpostu-zerrenda honi dagokion derrigortasun-daten ehunekoia betetzen dela, zerrenda osatzen duten lanpostuen kopurua handitu ondoren.

Aurreko guztia aintzat harturik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Zuzendaritza-kudeatzaileak lanpostu zerrenda aldatzeko proposamena prestatu du. Sindikatuei egin beharreko kontsultak egin ondoren, agiri hori erakunde autonomoaren administrazio kontseiluari aurkeztu zaio eta horrek erabaki du Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, horrek lanpostu zerrendaren aldaketa onar dezan; betiere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen apirilaren 3ko Diputatuen Kontseiluaren 25/2012 Foru Dekretuak 8.m) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, bere betearazpen eginkizunaren baitan, foru aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onestea, halaxe xedatzen baitu abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta araubide juridikoari buruzkoak, 8.12 artikuluan, betiere urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, ekonomia jardueren eta foru zerbitzu publiko deszentralizatuen kudeaketari buruzkoak, 9.d) artikuluan xedatutakoarekin loturik.

Horregatik guztiagatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostu zerrendaren aldaketa. Hona hemen:

- I. eranskinean jasotzen den lanpostua kentzea.
- II. eranskinean jasotzen diren lanpostuak sortzea.

Bigarrena. Foru dekretu honek 2020ko abenduaren 31tik aurrera sortuko ditu ondorioak, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Hirugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpen hori eman duen erakunde berean; hori guztia, 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera ( uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua arautzen duena), betiere 39/2015 Legearen 123. artikuluan xedatutakoarekin lotuta (urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa).

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 29a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**

*Gizarte Zerbitzuen zuzendaria*

**ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ**

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.alava.net/ifbs/

**LANPOSTUEN ZERRENDA**  
**I ERANSKINA**  
**LANPOSTUA KENTZEA**

PAG.- 1

KODEA	IZENA	L M	DED. ERR.	BETE. MODUA	ADMINIS.	LANPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK				LANSARIAK		
						SAIKAP. T E A K	IKASK. TITUL.	HIZKUN. ESKAKI.	BERAR. EZAG.	D.O. MAIL.	BERARIA. OSAGARR.	LANTOKIAREN HERRIA

ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

ARLOA : 80.2.01.1 EKONOMIA ETA AURREKONTUAK

42.002 ADMINISTRARI BURUA "B" EB L GOFE C 1 2 2 12/1998 19 20.687,52 VITORIA-GASTEIZ

UNITATE HONI ESLEITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 1

ARLOA : 80.2.01.1 EKONOMIA ETA AURREKONTUAK Postuen osoa 1

ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA Postuen osoa 1

UNITATEKO LANPOSTUAK GUZTIRA : 1

## ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



## ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.alava.net/ifbs/

**Lanpostu-motari dagozkion gakoien azalpena:**

EB EZ BAKUNA  
B BAKUNA

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion gakoien azalpena:**

L LEHIAKETA  
I IZENDAPEN ASKEA

**Eskalei dagozkien gakoien azalpena:**

2 ADMINISTRAZIO BEREZIA  
22 ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK  
221 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK  
222 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA  
213 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA  
212 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA  
211 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
1 ADMINISTRAZIO OROKORRA  
12 ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK  
13 ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK  
15 ADMINISTRAZIO OROKORRA-KDEAKETA  
14 ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK  
11 ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK  
3 GAIKUNTZA NAZIONALA  
32 GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILTZA-DIRUZAINTZA

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion errekirimendu espezifikoen azalpena**

001 ENPRESAKO ERIZAINTZAKO DIPLOMA  
002 GIDABAIMENA, D MOTAKOA  
003 GIDABAIMENA, B MOTAKOA  
004 ARRISKUEN PREBENTZIORAKO IKASTARO AURRERATUA  
005 LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA  
010 ERIZAIN LANETAN URTEBETEKO ESPERIENTZIA  
011 KUDEAKETAN URTE 1 ESPERIENTZIA EDO 2 URTE ERIZAIN  
012 KUDEAKETA LANPOSTUETAN BI URTEKO ESPERIENTZIA  
013 SEXU DELITUGEEEN ERREG. ZENTRALAREN EZEZKO ZIURTAG.

**Ikasketa Tituluen azalpena:**

100 ESKOLA ZIURTAGIRIA  
200 ESKOLA GRADUATUA  
300 LEHEN GRADUKO LANBIDE HEZIKETA  
301 LH I ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA  
302 LH I OSASUN ARLOA  
303 LH I OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKOESEZ  
304 LH I ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA  
305 LH I METAL ARLOA  
306 GIZA-OSASUN ARRETAKO TEKNIKARIA  
400 BBB EDO LH II  
401 LH II ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA, INFORMA  
402 LH II NEKAZARITZA ARLOA  
403 LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA ARLOA  
404 LH II OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKO ESPE  
405 LH II METAL ARLOA  
406 LH II GIZARTE EGOKITZAPENEN EDO EZINDU PSIKIKOEN  
500 UNIBERTSITATE DIPLOMA  
501 ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA  
502 GIZARTE LANEKO UNIBERTSITATE DIPLOMA  
503 INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA ADARRA  
504 GIZARTE GRADUATUA  
505 FISIOTERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA

## ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



## ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

[www.alava.net/ifbs/](http://www.alava.net/ifbs/)

506	LAN-TERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
507	OHO-KO IRAKASLEA
507.001	OHO-KO IRAKASLEA, SENDABIDEZKO PEDAGOGIA
508	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE DI
509	INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA ADARRA
510	BIBLIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA
511	GIZARTE HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
512	INFORMATIKAKO INGENIARI TEKNIKOA
513	HEZK-GIZ. ZIENTZ.DIPL-LIZ GIZ.HEZ.ELKARG.GAIKUNTZA
600	UNIBERTSITATE LIZENTZIA
601	SOZIOLOGIAN LIZENTZIADUNA
602	INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA
603	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA
603.001	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, GERIATRIAKO ESPEZIALITATE
603.002	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BIRGAITZEKO ESPEZIALITATE
603.003	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIA
603.004	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, PSIKIATRIAKO ESPEZIALITAT
603.005	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BARNE MEDIKUNTZAKOESPEZI
603.006	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ESP
604	PEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA
605	PSIKOLOGIAN LIZENTZIADUNA
606	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA
607	ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA
608	GOI-MAILAKO INGENIARITZA INDUSTRIALA
609	PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA

## ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

www.alava.net/ifbs/

## LANPOSTUEN ZERRENDA

## II. ERANSKINA

## LANPOSTUAK SORTZEA

PAG.- 1

KODEA	IZENA	L M	DED. ERR.	BETE. MODUA	ADMINIS.	LASPOSTUAN JARDOTEKO BETEBEHARRAK				LANSARIAK		LANTOKIAREN HERRIA
						SAIKAP. T E A K	IKASK. TITUL.	HIZKUN. ESKAKI.	BERAR. EZAG.	D.O. MAIL	BERARIA. OSAGARR.	

## ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

## ARLOA : 80.2.01.2 KONTRATAZIO ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

54.047 ADMINISTRARIA EB L GOFE C 1 2 2 01/2020 17 18.367,58 VITORIA-GASTEIZ

ARLOA : 80.2.01.2 KONTRATAZIO ETA ARAUBIDE JURIDIKOA Postuen osoa 1

## ARLOA : 80.2.01.3 LANGILEEN KUDEAKETA

## UNITATEA : 80.2.01.3.1 LANGILEEN KUDEAKETA

24.005 LANGILEEN ARLOKO ERDI MAILAKO EB L GOFE B 1 5 2 1 2 504 22 23.839,34 VITORIA-GASTEIZ

UNITATEA : 80.2.01.3.1 LANGILEEN KUDEAKETA Postuen osoa 1

ARLOA : 80.2.01.3 LANGILEEN KUDEAKETA Postuen osoa 1

## ARLOA : 80.2.02 ADINEKOAK

## UNITATEA : 80.2.02.6 SAMANIEGOKO EGOITZA

55.816 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 2 14 9.000,95 SAMANIEGO

2 1 3 306

55.817 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 2 14 9.000,95 SAMANIEGO

2 1 3 306

UNITATEA : 80.2.02.6 SAMANIEGOKO EGOITZA Postuen osoa 2

## UNITATEA : 80.2.02.7 AMURRIKO EGOITZA

55.819 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 14 9.000,95 AMURRIO

2 1 3 306

55.822 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 14 9.000,95 AMURRIO

2 1 3 306

55.823 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 2 01/2020 14 9.000,95 AMURRIO

2 1 3 306

UNITATEA : 80.2.02.7 AMURRIKO EGOITZA Postuen osoa 3

## UNITATEA : 80.2.02.8 OIONGO EGOITZA

55.818 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB 50,00 L GOFE D 2 1 3 302 2 14 9.000,95 OYÓN-OION

2 1 3 306

UNITATEA : 80.2.02.8 OIONGO EGOITZA Postuen osoa 1

## UNITATEA : 80.2.02.9 ZADORRA EGOITZA

55.820 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB L GOFE D 2 1 3 302 2 14 18.001,90 VITORIA-GASTEIZ

2 1 3 306

55.821 ERIZAIN LAGUNTZAILEA EB L GOFE D 2 1 3 302 2 14 18.001,90 VITORIA-GASTEIZ

2 1 3 306

UNITATE HONI ESLEBITUTAKO LANPOSTU KOPURUA: 2

UNITATEA : 80.2.02.9 ZADORRA EGOITZA Postuen osoa 2

ARLOA : 80.2.02 ADINEKOAK Postuen osoa 8

## ARLOA : 80.2.05 ADINGABEA ETA FAMILIA

## UNITATEA : 80.2.05.1 ADINGABE ETA FAMILIAREN TALDE TEKNIKOAK

▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



Gizarte Ongizaterako  
Foru Erakundea  
Instituto Foral  
De Bienestar Social

**LANPOSTUEN ZERRENDA**  
**II. ERANSKINA**  
**LANPOSTUAK SORTZEA**

▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

PAG.- 2

www.alava.net/ifbs/

KODEA	IZENA	L M	DED. ERR.	BETE. MODUA	ADMINIS.	LANPOSTUAN JARDOTeko BETEBEHARRAK				LANSARIAK		
						SAIKAP. T E A K	IKASK. TITUL.	HIZKUN. ESKAKI.	BERAR. EZAG.	D.O. MAIL.	BERARIA. OSAGARR.	LANTOKIAREN HERRIA
85.011	ADM.OROKORREKO G-M TEKNIKARIA	EB		L	GOFE	A 1 1		4		25	29.961,26	VITORIA-GASTEIZ
UNITATEA : 80.2.05.1 ADINGABE ETA FAMILIAREN TALDE TEKNIKOA						Postuen osoa		1				
ARLOA : 80.2.05 ADINGABEA ETA FAMILIA						Postuen osoa		1				
ZUZENDARITZA : 80.2 GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA						Postuen osoa		11				
UNITATEKO LANPOSTUAK GUZTIRA : 11												

## ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA  
www.alava.net/ifbs/

**Lanpostu-motari dagozkion gakoien azalpena:**

EB EZ BAKUNA  
B BAKUNA

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion gakoien azalpena:**

L LEHIAKETA  
I IZENDAPEN ASKEA

**Eskalei dagozkien gakoien azalpena:**

2 ADMINISTRAZIO BEREZIA  
22 ADMINISTRAZIO BEREZIA-ZERBITZU BEREZIAK  
221 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-EGINKIZUN BEREZIAK  
222 ADMIN. BEREZIA-ZERBIT. BEREZIAK-LANBIDEETAKO KIDEA  
213 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-TEKNIKARI LAGUNTZAILEA  
212 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA  
211 ADMIN. BEREZIA-TEKNIKARIAK-GOI-MAILAKO TEKNIKARIA  
1 ADMINISTRAZIO OROKORRA  
12 ADMINISTRAZIO OROKORRA-ADMINISTRARIAK  
13 ADMINISTRAZIO OROKORRA-LAGUNTZAILEAK  
15 ADMINISTRAZIO OROKORRA-KDEAKETA  
14 ADMINISTRAZIO OROKORRA-MENPEKOAK  
11 ADMINISTRAZIO OROKORRA-TEKNIKARIAK  
3 GAIKUNTZA NAZIONALA  
32 GAIKUNTZA NAZIONALA-KONTUHARTZAILTZA-DIRUZAINTZA

**Lanpostua betetzeko moduari dagozkion errekirimendu espezifikoen azalpena**

001 ENPRESAKO ERIZAINTZAKO DIPLOMA  
002 GIDABAIMENA, D MOTAKOA  
003 GIDABAIMENA, B MOTAKOA  
004 ARRISKUEN PREBENTZIORAKO IKASTARO AURRERATUA  
005 LANEKO ERIZAINTZAKO ESPEZIALITATEA  
010 ERIZAIN LANETAN URTEBETEKO ESPERIENTZIA  
011 KUDEAKETAN URTE 1 ESPERIENTZIA EDO 2 URTE ERIZAIN  
012 KUDEAKETA LANPOSTUETAN BI URTEKO ESPERIENTZIA  
013 SEXU DELITUGEEEN ERREG. ZENTRALAREN EZEZKO ZIURTAG.

**Ikasketa Tituluen azalpena:**

100 ESKOLA ZIURTAGIRIA  
200 ESKOLA GRADUATUA  
300 LEHEN GRADUKO LANBIDE HEZIKETA  
301 LH I ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA  
302 LH I OSASUN ARLOA  
303 LH I OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKOESEZ  
304 LH I ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA  
305 LH I METAL ARLOA  
306 GIZA-OSASUN ARRETAKO TEKNIKARIA  
400 BBB EDO LH II  
401 LH II ADMINISTRAZIO ETA MERKATARITZA ARLOA, INFORMA  
402 LH II NEKAZARITZA ARLOA  
403 LH II ELEKTRIZITATEA/ELEKTRONIKA ARLOA  
404 LH II OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA, SUKALDEKO ESPE  
405 LH II METAL ARLOA  
406 LH II GIZARTE EGOKITZAPENEN EDO EZINDU PSIKIKOEN  
500 UNIBERTSITATE DIPLOMA  
501 ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA  
502 GIZARTE LANEKO UNIBERTSITATE DIPLOMA  
503 INGENIARITZA TEKNIKOA, INDUSTRIA ADARRA  
504 GIZARTE GRADUATUA  
505 FISIOTERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA



## ▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA



## ▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

[www.alava.net/ifbs/](http://www.alava.net/ifbs/)

506	LAN-TERAPIAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
507	OHO-KO IRAKASLEA
507.001	OHO-KO IRAKASLEA, SENDABIDEZKO PEDAGOGIA
508	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO UNIBERTSITATE DI
509	INGENIARITZA TEKNIKOA, NEKAZARITZA ADARRA
510	BIBLIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOKO DIPLOMA
511	GIZARTE HEZKUNTZAKO UNIBERTSITATE DIPLOMA
512	INFORMATIKAKO INGENIARI TEKNIKOA
513	HEZK-GIZ. ZIENTZ.DIPL-LIZ GIZ.HEZ.ELKARG.GAIKUNTZA
600	UNIBERTSITATE LIZENTZIA
601	SOZIOLOGIAN LIZENTZIADUNA
602	INFORMATIKAN LIZENTZIADUNA
603	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA
603.001	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, GERIATRIAKO ESPEZIALITATE
603.002	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BIRGAITZEKO ESPEZIALITATE
603.003	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, LANEKO MEDIKUNTZA ESPEZIA
603.004	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, PSIKIATRIAKO ESPEZIALITAT
603.005	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA, BARNE MEDIKUNTZAKOESPEZI
603.006	MEDIKUNTZA LIZENTZIADUNA FAMILIAKO MEDIKUNTZAKO ESP
604	PEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA
605	PSIKOLOGIAN LIZENTZIADUNA
606	EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIETAKO LIZENTZIADUNA
607	ZUZENBIDEAN LIZENTZIADUNA
608	GOI-MAILAKO INGENIARITZA INDUSTRIALA
609	PSIKOPEDAGOGIAN LIZENTZIADUNA